

Mutualiaren PREBENTZIOZKO BEGIRADAK XXI. Lehiaketa - 2024



Mutualiako Prebentzio Aholkularitzak PREBENTZIOZKO BEGIRADAK LEHIAKETAren XXI. edizioa jarri du abian. Lehiaketak argazkirik onena, adimen artifizial bidez sortutako irudirik onena eta, aurtun lehenengoz, bideo laburrik onena sarituko ditu, betiere erakargarritasun artistikoaren bidez prebentzioaren gaur egungo egoera islatzen badute, laneko segurtasunaren eta osasunaren problematikaren gainean gizartea kontzientziatzen eta sentsibilizatzen laguntzen badute, laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko mezuak zabaltzen badituzte eta enpresa osasungarria sustatzen badute jardunbide egokiak positiboki baloratuz.

Diru-kopuru hauek banatuko dira **saritan**:

- | | |
|--|---------|
| • Argazki onenaren saria: | 1.200 € |
| • AA bidez sortutako irudi onenaren saria: | 600 € |
| • Bideo labur onenaren saria: | 1.200 € |

Aurkezten diren **materialak** jatorrizkoak eta eskusiboki parte-hartzailearenak izan behar dute. Ezingo dute lehiaketan parte hartu aldez aurretik argitaratu direnek edo lehiaketaren batean saria jaso dutenek. Materialak estatuko errealtatera mugatuko dira.

Argazkiak:

- Ez da onartuko digitalki eraldatutako argazkirik (salbuespen gisa, onartzen dira esposizio-, kontraste- eta argiztapen-doiketa arinak eta zuri-balantzeen doiketa arinak). Ez da onartzen obraren jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak gehitzea edo ezabatzea. Gomendatzen da jatorrizko fitxategiak gordetzea, zalantzaren bat sortuz gero, ebatzi ahal izateko.
- Koloretakoak edo zuri-beltzekoak izan daitezke.
- .JPG formatu digitalean bidali behar dira.
- 6 megapixeiko bereizmena izan behar dute gutxienez.
- .JPG fitxategiak ez ditu izan behar 10 MB baino gehiago.

AA bidez sortutako irudiak:

- Estilo errealista izan beharko dute.
- .JPG formatu digitalean bidali behar dira.
- 3 megapixeiko bereizmena izan behar dute gutxienez.
- .JPG fitxategiak ez ditu izan behar 10 MB baino gehiago.

Bideo laburrak:

- Edozein teknika erabili ahal izango da (animazioa, grabazioa, adimen artifiziala...). AA erabiltzen bada, "deskribapen-orria" adierazi beharko da.
- Edukia fikziozkoa edo dokumentala izan ahalko da, eta genero guztiak onartuko dira (komedia, drama, zientzia-fikzioa, etab.). Jatorrizko ideiak eta lehendik dauden proiektu eta bideoetan oinarritutakoak aurkeztu daitezke.
- Gehieneko iraupena 20 segundo da.
- Edozein formatutan bidali daitezke, bertikalean nahiz horizontalean.
- Gutxienezko kalitatea: HD.
- Hizkuntza: euskara eta gaztelania. Bi hizkuntzetako azpiztituluak baloratuko dira.

Argazkiak eta irudiak egilearen izen-abizenekin behar bezala identifikatuta bidali behar dira, Mutualiaren webgunean dagoen "deskribapen-orria" rekin batera (www.mutualia.eus), helbide honetara: **prebentzioa@mutualia.eus**. Bideoak, "deskribapen-orria" rekin batera, Wetransfer plataformaren bidez bidali behar dira, **prebentziobideoak@mutualia.eus** helbidera esteka bidalita.

Aurkezteko epea 2024ko martxoaren 31n bukatuko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta Mutualiaren webgunean eta sare sozialetan emango da jakitera, 2024ko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Mundu Egunean.

Mutualiaren webgunean irakur ditzakezu
lehiaketaren oinarriak osorik:

www.mutualia.eus

Animatu parte hartzera!